

Zenbakiak sexuan

Politikarien arteko ohiko ika-mika eta tratu txarren arteko notizien artean, EITBren App-ean irakurri nuen nafarren %60k ez duela antisorgailurik erabiltzen lehen sexu-harremanean. Eta Euskal Autonomia Erki-degoko datuak antzekoak direla. Aja. Askotxo iruditu zitzaidan. Aitortzen dut, gehiegitxo ere iruditu zitzaidan. Gero pentsatu nuen, belaunaldi-perspektiba kontua izango zela. Azken batean, pasa dira urte batzuk gure lehen sexu-harremanen garaitik... Ala horrenbeste urte Euskal Herritik kanpo daramatzadalako eman al zidan arreta datuak?


Sujeta ahaztu ez zaidanez, eta abenduaren 1ean HIESaren kontrako nazioarteko eguna denez, sarean bilaketa egitea erabaki dut. Konparatu nahi nuen. Bizilekua Berlinen baina burua bi tokitan bizi duen norbaiten maniak... 2010ean Alemaniako gazteen sexualitateaz aztertu zuen ikerketaren arabera, hara: lehen aldian %92k erabili zituen antisorgailuak. Horietako gehienek kondoia. Badakit estatistiketan, elementu askori begiratu behar zaiola eta erantzun guztiak ere ez direla egia izango. Baina dezentekoa da aldea. Pentsa, ezertxo ere erabili ez zutenak %8 baino ez zirela izan! Horietatik %60k, egoera espontaneoegia izatea eman zuen arrazoi gisa. Euskal Herriko gazteek droga eta alkohola aipatzen omen dute batez ere arrazoen artean. Baina (hemendik dudan inpresioa da) Euskal Herria eta drogak, hori beste tabu bat da.

Adituek diote arazoa ez dela gazteen informazio falta. Ez, ziurrenez ez. Nik hona ekarriko dudan aspektua baino azalpen antropologikoagoa beharko du arazoak. Kanpaina prebentiboen ikusgarritasuna datorkit niri burura. Urteak dira Euskal Herrian bizi ez naizela eta ez da harritzekoa izango Osakidetzak 2008an eta 2013an egindako kartelak



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

ez ezagutzea. Kartelak osasun zentroetan, farmazietan eta sarean zabaldu omen ziren. Ni han nagoenean, ordea, gehiago ibiltzen naiz Bilboko Metroan, eta etxebizitzak edo autoak erosteko kredituen publizitatea sartu izan zait batez ere begietatik.

Berlinera heldu nintzeneko urteetan HIESaren prebentziorako kanpainak koloretako kondoia erakusten zituzten fondo zuriaren kontra: betaurreko arrosak maiteminduentzat eta munduko globo urdina ibiltarientzat. Urtero irteten da kanpaina berria kalera. Eta kalera idaztean, kaleetara diot, espazio publikora. Kondoia pepino, artaburu zein mailukiak biltzen ikusi ditugu. Sexurako tokiak: tximiniadun gela erromantikoa suarekin jolastu nahi zutenentzat, gazteren baten gela kaotikoa, laku baten ertzeko kai erdi-ertzutua. 2012tik aurrera pertsonak agertzen dira, zer nolako sexua praktikatzeko duten esanez. Maitekor egiten dutenak, klasiko, eroso, lotsa gabe, sinpleki, espontaneoki, seguru... Aurtengo eslogana: Latexarekin egiten dut. Esperientziarekin egiten dut. Lagun egokiarekin egiten dut. Senarrarekin egiten dut. Bihotz-taupadekin egiten dut. Praxak jaitzita egiten dut. Ginekologoarekin egiten dut. Eslogan nagusien inguruko mezuetan hainbat aspektu aipatzen dira, esaterako, sexu transmisiozko beste gaixotasunak, eta haietaz bikotekidearekin hitz egin eta medikuarengana jotzeko garrantzia. 65.000 kanpoko publizitate-euskarri jaso dituzte aurtur musu-truk.

Osakidetzako webgunean irakur daitekeenez, "gaur egungo testuingurua herostura sozialari jarraiki, baztertu egin zen zabalkundeko alde garestiena; kanpoko publizitate-euskarrien kontratazioa". Krisiak euskal gazteen harreman intimoen etaraino eragina duela ondorioztatzen dut. ■